



IKASTETXEAREN URTEKO MEMORIA

2018-19 ikasturtea

DOLORES IBARRURI BHI

014010

ABANTO-ZIERBENA



AURKIBIDEA

	Orrialdea
0.- SARRERA	1
1.- HELBURU OROKORREN EBALUAZIOA	1
1.1.- IUPean proposatutako helburuen lorpen maila eta garapena	1
1.2.- Ikasleriaren ikaskuntza-prozesuen ebaluazioa	5
2.- IRAKASKUNTZA JARDUEREN PROGRAMAREN EBALUAZIOA	5
2.1.- Departamentuek egindako irakaskuntza jardueraren ebaluazioa	5
2.2.- Zentroaren antolamenduaren ebaluazioa	5
2.3.- Berriazko programen ebaluazioa	7
2.3.1.- Irakaskuntzarako ekintzak	7
2.3.2.- Berrikuntza eta Hobekuntza proiektuak	8
2.3.3.- Beste batzuk	10
3.- BIZIKIDETZA URTEKO PLANAREN EBALUAZIOA	11
4.- OSAGARRIKO ETA ESKOLAZ KANPOKO EKINTZETARAKO PROGRAMAREN EBALUAZIOA	11
5.- IRAKASLEENTZAKO FORMAZIO PLANAREN EBALUAZIOA	12
6.- URTEKO KUDEAKETA EGITAMUAREN EBALUAZIOA	12
7.- ONDORIOAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	12

0.- SARRERA

DOLORES IBARRURI BHIko 2018-2019 ikasturteko Ikastetxearen Urteko Memoriak (IUM) epe motzerako balio duen kudeaketa-baliabidea da, ikastetxeak oro har nola funtzionatzen duen eta ikasleen ikaskuntza-prozesua eta emaitzak zertan diren aztertzen duena. Ikastetxearen jardura nagusiak laburbiltzen ditu eta hobekuntzarako helburuak eta esku hartzeko irizpideak azpimarratzen ditu.

IUM hau datuetako zuzeneko bilketa sistematikotik aurrera egin da, irakasleei zuzendutako lau galdeketa espezifikoren bitartez: zentroaren helburu orokorren ebaluazioa, zentroaren funtzionamendu orokorreko alderdien ebaluazioa, zentroko zerbitzuen eta programen ebaluazioa eta, azkenik, organo desberdinei edo institutuaren taldeei zuzendutako ebaluazio orokorra. Parte-hartzea oso altua izan da.

Baditugu, aldiz, ikasturtean zehar egiten diren ekarpenak (kexak, iradokizunak, etab.), institutuaren funtzionatzeko dinamika arruntari dagozkionak.

IUMek Ikastetxearen Urteko Planean (IUP) lehenetsitako jardueri buruzko datuak ere jasotzen ditu eta ikasturtean zehar eginiko hainbat iritzi, ohar eta balorazio kontutan izan dira honako egoera hauez baliatuz: ikasleak ebaluatzeko saiok, gobernu- eta pedagogia-organok berrikusteko bilerak, familiekin egindako bilerak, etab.

1.- HELBURU OROKORREN EBALUAZIOA

1.1.- IUPean proposatutako helburuen lorpen maila eta garapena

IUPean bildutako lehentasunezko ildoak bultzatzen jarraitu ditugu, bereziki hauexek nabarmenduz:

Kalitatezko hezkuntzako garapen laneko jarraipena (metodologia eraginkorrak, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen ebaluazioa, etab.), ikasleen parte-hartzearen bultzada, bizikidetzaren hobekuntzan inplikazioa, bizikidetzaren oinarria den elkarrekiko errespetua indartuz, eta familiak euren seme-alaben hezkuntzan parte hartzea bultzatzea.

Proposatutako helburuen betekizun maila hauxe izan da:

- 1. helburua: *"Dolores Ibaruri BHI-n HAUSPOA Proiektua errotzea, emaitza akademikoak hobetzeko, familien eta ikasleen behar eta interesei erantzuteko eta berrikuntza metodologikorako baliabide bizia delarik, inguruko erakundeen eskaintzaz baliatuz"*.
 - Ikasleen partaidetza: Helburu horren ebaluazio adierazleak DBHko ikasleriaren %25ak izena ematea lortu nahi genuela aditzera ematen badu ere, etapa osoko ia 68ak hartu du parte: Oso partaidetza maila altua lortu dugu.
 - Batxilergoan, aldiz, ikasleen partaidetza %30ekoa izan da; datu hau hurrengo ikasturterako abiapuntu bezala erabili behar dugu ikasle hauen presentzia bultzatzeko
 - Ez dugu lortu PIREak dituzten ikasle gehienek izena ematea indartze tailerretan (%21 baino ez). Hori bai, izena eman duten gehienek esku-hartzearen ondorioz gainditu gabeko ikasgaiak gainditu dituzte (%75a ohiko ebaluazioan).

- Proiektuaren oinarritzko araudia onartu egin du maiatzaren 25ean bai klaustroak eta bai OGG-ek eta jadanik, gure AJAn dago.
 - Ikasleen partaidetza neurtzeko prozedura ezarri dute proiektuaren koordinadoreek: Excel orrien bidezko estatistika partzialak eta globalak egin ditugu tailer bakoitzerako asistentzia jasotzeko.
 - Burututako jardueretik irakasle zein ikasleen asebetetze maila neurtzeko galdetegiak burutu dituzte koordinadorek. Irakasleek eta irakasleek egiten duten balorazioa oso positiboa da. Beste estamentuen balorazioa (Gurasoak, AZL) ere oso positiboa da.
 - Departamenduek, kurtso amaiera honetan, egokiz jardun duten jarduerak berriro burutzeko proposamena egin dute, programa iraunkorra sortzearen, baita ikasleen interesen arabera jarduerak berriak ere.
- 2. Helburua: *"Ikasleen emaitza akademikoaren azterketa sistematikoa burutzea, hobekuntzarako beharrezkoak izango diren curriculum eta antolakuntza neurriak bideratzeko abiapuntu bezala."*
 - Departamentu guztiek, programazio didaktikoetan, hitzezko komunikazioarekin, ez-hitzezkoarekin eta digitalarekin erlazionatutako helburuak sartu baita, egoerak, arazoak edo erronkak biltzen dituzten unitate didaktikoen lanean sakontzeko erabakiak hartu dituzte.
 - Batxilergoan eta DBH-n 1 eta 2 ebaluazioan kalifikazioen erregistro estatistikoa plazaratu dugu. Batzorde Pedagogikoak Kalifikazio orokorren diagnosis egin du. Departamenduek dagozkien kalifikazioen inguruko hausnarketa egin dute. Departamendu gehienek, eta batez ere 1 ebaluazioaren ostean, hobekuntzarako neurriak abian jarri dituzte. Hori bai, 2 ebaluazioan hobekuntzarako neurri kantitatea nabarmenki baxuagoa izan da. Zuzendaritzak departamenduek egindako diagnostikoa baita hobekuntza neurrien laburpen dokumentua ere luzatu die Departamenduei.
 - 3. Helburua: *"Kanpoko ebaluazioetako ikasleen emaitza akademikoak hobetzea"*

Emaitzak ez baditugu ere, honako alderdiak landu ditugu:

 - DBH 2 mailako ikasleek, irakasleek planifikatutako saio batzuk egin dituzte ebaluatuko diren gaitasunen frogak ezagutzeko. Horretarako ISE-IVEIko frogak askeak erabili dituzte irakasleek.
 - Frogaren data baino aste batzuk lehenago tutoretza bi saio erabili dira ikasleek simulazioa egiteko.
 - Garbi dago frogaren inguruan ikasle zein irakasleen artean motibazio giro egokia lortu dugula, gero emaitzetan eragin positiboa izan beharko duena.
 - 4. Helburua: *"IKTen erabilera ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan bultzatzea. Hezkuntza-komunitatean komunikazioen eraginkortasuna erraztu"*
 - Irakasleek, Alfresco inguruko formazioa egin ostean, eguneroko lanean erabilgarriak diren baliabideak ezagutu dituzten arren eguneroko lanean plataforma ez da erabiltzen. Horren ondorioz, alternatibak bilatu beharrean gaude, google suite-koa, adibidez.

-Zuzendaritzak gurasoei egindako deialdiak eta bestelako informazioak "Zabalkunde Zerrenda" baten bidez egiten hasi dira asebetetze handiz.

Irakasle guztiorentzako posta korporatiboa martxan da.

- 5. Helburua: *"Ikasleen parte hartzea bultzatzea zentroaren bizitzaren arlo guztietan"*.

-Zentroaren bizitzaren arlo guztietan ikasleen parte hartzea mantentzen dela onartu behar da: Delegatuen bilerak ere egokiz funtzionatu dira, baita jai egunak prestatzeko ekimenak, Bizikidetza eta Hezikidetza ekimenetan parte hartzeko partaidetza nabaria izan da. OGG-n ikasleen presentzia altuagoa izan da aurten.

-Ikasleek irakaskuntza-praktika ebaluatzeko eredu bat adostu da zuzendaritza eta batzorde pedagogikoan, departamenduetara luzatu dena era boluntario batez ezartzeko. Denok barneratu behar dugu ebaluazio prozesuak ikasleen iritziak jasotzea eskatzen duela. Irakasle bakoitzak, momentuz, egokia deritzon tresna erabiliko du baina departamendu bilera batean, eta ebaluazio bakoitzaren ostean, ikasleek irakaskuntza praktika ebaluatzeko saioaren ondoriozko emaitzak tratatuko dira.

2018-19ko Urteko Planaren helburuen sekuentzian zehazki adierazita agertzen ez bazen ere aipatzekoak dira:

- Ikastetxeko **Hizkuntza Plana** berrizte prozesu sakona amaitu dugula aurten: azkeneko urteko erabakiak hartzen dituen dokumentua bihurtu dugu; epe laburrerako helburu eta ekintza zehatzak dituela eta Hizkuntza Proiektuaren batzorde iraunkorra osatu delarik.
- Ikastetxeko **AJA** eta bere baitan diren **Bizikidetza arauak** eguneratu ditugu.

Hurrengo alderdi positiboak, gainera, aipatzen dira:

- Ikastetxeko elkarbizitza giro egokia orokorrean pasilloetan lasaitasuna hautematen da sarrera eta irteeretan, saio aldatetetan, baita patioetan ere.
- Departamenduetako lana. Irakasleen puntualtasuna, erantzukizun eta profesionaltasuna.
- Institutuaren estamentuen arteko koordinazioa maila.
- Ikasleen emaitza akademikoen azterketa egitea departamenduetan.
- Ikasleen partaidetza jardunaldi berezietan (jaiak, euskal astea); antolakuntza ona eta irakasleen inplikazioa.
- Ikasleen bizikidetzaren aurkako jokabideen kudeaketa eraginkorra, irakasleentzako laguntza handia izan da.
- Kanpoko erakundeekiko harremana: Udala, Diputazioa eta Sormening erakundea, Golf elkarte...e.a.
- HAUSPOA Proiektuak ikastetxeko bizitzan izandako eragin oso positiboa.
- IKTak ikasgelan duten garapena.
- Ekintza osagarriak kopuru garrantzitsuan antolatzen dira eta oso interesgarriak eta aberasgarriak dira ikasleen garapenerako. Gehiengoak ebaluatutako izan dira dagozkien prozedurarekin. Ikaskuntza prozesuaren alderdi praktikorako ezin bestekoak dira.

- Patioen elkarbizitzan "Patioak Animatzeko Proiektuak" duen eragin positiboa.
- IKT arduradunaren lan eraginkorra.
- Zuzendaritzako eta koordinazioko lan koherente eta jarraitua ikusten da.

Beste hobetzeko alderdi batzuk ere aipatzen dira:

- Metodologia berrien presentzia gutxi, ikasleei ematen diogun balio eranskina hobetzeko gaitasunen garapenari garrantzi gehiago eman behar diogu. Jarraitu behar dugu programazioak egokitzen ikasleen eta ikastetxearen beharretara.
- Ez dugu behar bereziak edo jokabide ezegokia dituzten ikasleekin jarduteko estrategia komunak.
- Ikasleek irakasle on lana balorazioa egiteko orduan irakasleen arteko ikuspuntu desberdinak.
- Irakasle berriei kurtso hasieran eman zaien informazio gutxi.
- Ekintza osagarrien egutegia mugatzea, batez ere batxilergoan eta maiatzan.
- Ikasleen partaidetza ikastetxeko bizitzan; ordezkarien bidez hura gehiago bultzatu behar da.
- Ikasgelak zabalik geratu dira jolas-orduetan; giltzen arduraren kudeaketan batzutan ikasleek eta irakasleok kale egin dugu.
- Irakurketa plana ez dugu martxan jarri. Alor bakoitzeko testuen idatzizko eta ahozko adierazpena landu eta ebaluatu behar dugu.
- Bitartekaritza zerbitzua ez da erabili.
- Ikasleekin dokumentuak elkar konpartitzeko IKT tresna indartsurik ez daukagu (Drive).
- Informatika gelak txikiak dira 25 ikasleentzako (H. Zikloak); WIFI erabiltzeko aukera ikasleei eman behar zaie.
- Irakasleontzako Formazio planean IKT inguruko ekintzak sartzeari ikasgelan aplikazio zuzena dituztenak.

1.2.- Ikasleriaren ikaskuntza-prozesuen ebaluazioa

Ikasleek ikasitakoaren ebaluazioa euren emaitza akademikoetan zuzeneko isla du. Departamentu bakoitzak emaitza horien konparaziozko ikerketa egiten du ebaluazio partzial bakoitzaren ostean eta urtero bere urteko txostenean.

Aurten 1 eta 2 ebaluazioko ikasleen emaitzak sistematikoki aztertu dira batzorde Pedagogikoan eta Departamenduetan. Gogoeta horren ondorioz, zuzenketarako eta hobekuntzarako proposamenak egin eta abian jarri dira irakas-ikaste prozesuan eragin positiboa izateko:

- Kurtsoz kurtso irakasle bera jarraitzeak eragin positiboa dauka.
- Klaseko lana, arreta eta exijentzia maila baloratzen jarraitu behar dugu.
- Ikus-entzunezko material euskaldunak bilatu behar ditugu.
- Matematika indartzea beste irakasgaietan.
- Errepassoak egingo ditugu ikasitakoa berrindartzeko.
- Azalpen ximpleagoak erabili, praktikoagoak.
- Behar duten ikasleei errefortsu materiala emango diegu.
- Familiekin harremana indartzea.
- Etxeko lanen jarraipena indartzea eta gehiago baloratzea.
- Jarrerari balio handiago eman.
- Errefortsu positiboak erabili motibazioa lortzeko, ariketa berezien bidez.
- Inguruak eskaintzen dituen ariketa fisikoa egiteko instalazioetara ikasleak hurbiltzea.

2.- IRAKASKUNTZA JARDUEREN PROGRAMAREN EBALUAZIOA

2.1.- Departamentuek egindako irakaskuntza jardueren ebaluazioa

Institutuko departamentu guztietan irakaskuntza-ikaskuntza jardueren ebaluazio sistematikoa egin da memoria laburtu baten ereduaren bitartez.

Laburbilduz, honako aspektu nabarmenagoak azpimarra ditzakegu:

- Kasu guztietan IKT erabilera gero eta handiagoa dela aipatzen dute eta geletan erabilera handitzeko asmoa adierazten dute.
- Departamentu gehienetan irakasteko praktikari buruzko egindako ebaluazio lan bikaina nabarmendu behar da, 19-20 ikasturteko programazioetan sartzeko zehatzak, egituratuak eta gradualak diren hobetzeko proposamen garrantzitsuak atereaz.

2.2.- Zentroaren antolamenduaren ebaluazioa

Institutuaren funtzionamendua ona, orokorrean, izan dela baloratzen da, honako alderdi hauek nabarmenduz:

- 2018-2022 bitarteko Zuzendaritza Proiektua izateak egonkortasuna eta norabidea ematen dio ikastetxeari.
- HAUSPOA Proiektuak Zentroaren antolamenduko hainbat alorretan izan duen eragin positiboa.
- Zuzendaritza Taldeak egindako antolaketa eta gestio lana eraginkorra.
- Zentroko organo desberdinen funtzio banaketa ondo dago zehaztuta eta erantsitako funtzioak betetzen dituzte.

- Irakasleen ordutegiak orekatuak eta bakoitzaren egoera kontutan hartzekoak izateko esfortzu garrantzitsua egiten da. Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren (AJA) irizpideak jarraituz eginak dira.
- Tutoretza lanaren garrantzia gelako eguneroko egoerei erantzuna emateko. Tutoretza Plana guztion inplikazioaz eramaten da aurrera.
- Ekintza osagarriak aberasgarriak eta egokiak izan dira, irakaskuntzan laguntzen dute eta kanpoko egoera zentrora hurbiltzen dute.
- Proiektuen barruan eginiko ekintzak.
- Laguntzak eta errefortzuak beharrezkoak dira eta arazoak dituzten ikasleei laguntza ematen diete. Pedagogia Terapeutikako (PT) irakasleen lana eta Hezkuntza bereziko espezialistaren lana positiboa da oso.
- Koordinazio Pedagogikorako Batzordeak beharrezkoa den lana egiten du.
- Administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren lan eraginkorra.
- Administrazioetako langileriarako informatika talde berriak.
- Departamentuko Buruen Batzordeak ondo baloratuak izan dira departamendu buru gehienen partetik: bilera bakar batean departamendu buru guztiak izatea ere positiboki baloratua izan da. Bilerak alde aurretik ondo prestatuak dira eta ondo antolatuta daude, puntualtasunez eta lanerako prestasunez egiten dira, informazioa era argi batez ematen da, saioaren aktak garaiz osatu direnez departamendu bilerarako lagungarria izan da.

Hobetzeko alderdi desberdinak aipatzen dira:

- Saio bakoitzean eztabaidatzeko gai kopurua mugatzea eta denbora banaketa egokia bultzatzea: Batzutan lan zama handia dago eta eskatzen dena betetzeko epeaz nekez bete ahal dira.
- Alderdi pedagogikoak (metodologia, didaktika, etab.) eztabaidatzeko eta erabakitzeke denbora gehiago eman behar zaio.
- Batzutan gaiak azkarregi azaltzen dira eta zaila egiten da ulertzea eta idaztea aldi berean: ez dago eztabaidatzeko edo iritzirik emateko eta entzuteko.
- Bilera informazioa pasatzeko besterik ez da erabiltzen.

Hobetu daitezkeen alderdiak nabarmentzen dira:

- HAUSPOA Proiektua dela, ikastetxeko ordutegi berriak ekarritako ondorioak, bereziki batxilergoan.
- Iraka-esparruko ekimenak (HBPS/PREE.) urtez, urte mugatuagoak direla. Errefortzu ordu gehiago behar ditugu. Familia batzuen inplikazio eza PIRE programetan.
- Tutoretza planeko ekintzak aurrera eramateko denbora falta. Ikasleentzako ez dira erakargarriak. Astero ordubete bakar bat gutxi da DBH 1 eta 2 mailarako. Tutore laguntzaileak DBH osora zabaldu beharko zen.
- Irakasle on inplikazioa ikastetxeko proiektuetan.
- Laguntza eta errefortzuetan koordinazio falta hauteman da.
- PEG (Prestakuntza ekimen Globala) barruan burututako formazioen eraginkortasuna eta geletako aplikazio maila hobegarriak direla. Edukiak eta ordutegia bera ere ez dira egokiak izan. Norbere beharretara egokitutako formazio –ez behartuta- komenigarria ikusten da.
- Administrazio eta zerbitzu langileen euskararen erabilera.

- Ikastetxeko Proiektu eta Eskolaz kanpoko ekintzen gehiegikeria.
- Ikastetxeko sarrera (atea, eskailerak) baita zuhaixken eremua batzutan zikin daude.

2.3.- Berriazko programen ebaluazioa

2.3.1.- Irakaskuntzarako ekintzak

Balorazio oso positiboa da orokorrean.

Orientazio eta Tutoretza Plana (OTP):

Tutoreek oso lan garrantzitsua egiten dute eraginkortasun handiarekin. Ekintzak eta programak aurrera eramateko beharrezkoa den koordinazioa nabarmentzen dute. Geletako eguneroko egoerei erantzuna emateko oso garrantzitsutzat hartzen dute. Tutoreak era egokiz hautatu behar direla azpimarratu da eta zuzendaritzaren partetik informazio gehiago jaso behar dutela haien taldeetan esku-hartze egiten dutenean. Batzutan ere, denbora falta igarri da planifikatutakoa aurrera eramateko.

Gainditu gabeko ikasgaiak dituzten ikasleen jarraipenari dagokiona ikasturte hasieran planifikatutakoa bete egin da.

Kasu guztietan irakasleei eskatutako informazioa garaiz heldu zaie (azterketa datak, notak...e.a.).

Hasierako ikasleen zerrendak aldatzen direnean, baxak direla, ikasle berriak direla, koordinadoreari momentuan informazioa luzatzea beharrezkoa da.

Ikasturte hasieran ACI dituzten ikasleen eta osagarri programan dauden ikasleen zerrendak biltzen jarraitu behar da gainditu gabeko ikasleen behin betiko zerrendak egiteko.

Hezkuntzan Berriaz Sendotzeko Proiektua (HBSP) Irakasle batek eraman du aurrera. Izan dugun ordu murrizketagatik aurten interbentzioa oso mugatuta egon da eta hori emaitzetan islatu da. HBSParen bitartez ikasle hauek euskara arloan baino ez dute laguntza izan eta hori oso eskasa dela uste dugu.

Arduraduna arlo hauetan aritu da: Euskera (4 ordu talde bi taldeetan) eta Balio Etikoak(ordu bat) guztira 9 ordu. Horrez gain , beste irakasle baten ordubeteko laguntza izan dugu banakako tutoretza aurrera eramateko

Laguntza gela barruan izan da, inklusiboa, gutxiengo edukiak indartzen ikasle bakoitzaren maila kontuan hartuta eta gainditu gabe dituzten arloen jarraipena egiten.

Astero Balio etikoak arloaren ordua erabil da talde honen tutoretza egiteko eta bakoitzaren banakako jarraipena egiteko (agendaren erabilpena,etxerako lanen kontrola, ikasteko teknikak,eta azken finean ikasle hauen auto-konfiantzarako lagungarria izan daiteken guztia).

Euskara arloan metodologia inklusiboa oso positiboa izan da. Irakasle taldearen koordinazio lana positiboa izan da, baina ez nahikoa.

Kurtso bukaeran eta ikasle bakoitzaren lorpen maila ikusita ibilbide desberdinak egongo dira.

(Lanbide Hastapena eta Curriculum Anitzeko programa).

Argi dago bide hau jorratzen jarraitu behar dugula baina proiekturako egokitzen zaigun denbora oso eskasa da. Horregatik proiektu hau birplanteatu beharko litzateke benetan errealitate plano batetan.

AMUGE elkartearekin elkarlanean ikasle ijitoekin lan egin da egokitzen jotzen den lerroan: hutsegite maila txikitzeko, norbanakoko tutoretzak eta gelaren barruko errefortzuak erabiliz, familiak inplikaturik eta komunikazioa indartzeko harremanak ezarriz.

Heziketa Zikloetako ikasleentzako **Enplegurako Heziketa Jarduera Programa** arrakastaz garatu egin da, ondo antolatutako ekintzekin eta proposatutako helburuekiko ekintza egokiekkin.

2.3.2.- Berrikuntza eta Hobekuntza proiektuak

Oso interesgarriz hartzen dira hezkuntza komunitate osoarentzat eta, orokorrean, ondo garatuta daude.

Hauspoa:

Ikasturte hasieran 46 jarduera eskaini bagenuen ere, horietatik 29 jarri dira martxan, 5 tailer berri sortu direlarik kurtsoan zehar. Guztira, tailerren eskaintza 34 izan da, ikasleen 424 parte-hartze (ikasle bakoitzeko 2,7 batz bestekoarekin).

Lehenengo urte honetan aipatzekoa da:

- Ikasleen parte-hartze altua izan da (DBHko Ikasleriaren %67ak hartu du parte, Batxilergoan % 30ekoa, aldiz).
- Ikasleen eta irakasleen gogobetetze maila altua Proiektuarekiko
- Irakasleen inplikazio maila oso altua.
- Errefortzu tailerrak PIREak zituzten ikasleei emandako laguntza:

GAINDITU GABEKOAK (Ing- Eus-Mat-G ^a H-Gazt)	57 ikasle	
Errefortzuetan izena eman duten ikasle kopurua	12	%21
PIREak gainditu dituzten ikasleak (Ohiko ebaluazioan)	9	%75

-Ikasleen autonomia bultzatzeko eragile izatea.

-Praktika onak eta metodologia berriak ikaste-txeratzeko tresna izatea.

Hobetu behar diren eremuak:

-Ikasturtean zehar jarduerak/tailerak era orekatuaz banatu behar ditugu.

-Ikasle eta familiekin komunikazio errazteko prozedurak finkatu behar ditugu.

Tailerretarako partaidetza konpromisoak barneratu eta bete behar dituzte familiak.

-Batxilergoko ikasleak erakartzen dituen jarduerak ere eskaini behar ditugu.

-Pireak dituzten ikasle gehiagok errefortzu tailerretan izena eman dezaten lortu behar dugu.

-Errefortzu tailerrak mantendu eta, ahal den heinean, eskaintza zabaldu. Ikasturte osoan zehar tailer hauen presentzia iraunkorra sustatu behar dugu.

Normalkuntza:

Irakasleen inplikazioari dagokiola, mintegi bakoitzeko ordezkari batek batzordean formalki parte hartu ez arren, aurten ekintza batzuekin lotuta inplikazio handiagoa izan dute mintegi desberdinek: Hitzaldiak, "Euskape room", korrika... "Euskape room"ak bereziki, arrakasta handia izan du, ikasle, irakasle, guraso eta euskaltegiko ikasleek parte hartu dutelarik.

Gero eta gehiago kostatzen zaigu ikasle nagusiak inplikatzea (Batxilergoa eta Heziketa Zikloak); besteak, ordea, oso motibatuta daude. Honen inguruan hausnarketa egin dugu, eta ondorio batera heldu gara: lar presionatuta daudela curriculumarekin.

Ikasleen artean euskararen erabilpena areagotzea da proiektu honen helburu garrantzitsuenetarikoa eta horretarako irakasleriaren metodologia aldatzeko motibazioa landu behar dugula ikusten dugu, bai zuzendaritzaren aldetik, bai normalkuntza batzordearen aldetik, baita Berritzegunearen aldetik ere. Aurten idatzi berri eta onartuta daukagun Hizkuntza Plana lagungarria izango delakoan gaude.

Gurasoen inplikazioa lortzea zaila bada ere, datorren ikasturteari begira bide desberdinak jorratzea da helburua.

Hezkidetza:

Programatutako planifikazioa bete egin da. Ondoko alderdiak nabarmentzen dira bereziki:

- Ikasle laguntzaileek oso protagonismo garrantzitsua eta positiboa izan dute, batez ere talde zehatzetan. Departamendu batzuen inplikazioa aipatzekoa da.
- Emakunde-rako sare proiektuan sartzeari positibotasun jotzen da, esparru eta pertsona desberdinek parte hartu dutelako. Azaroaren 25rako liburu bat argitaratzea dugu helburu.
- Egun berezien alboan (A25, M8) egiten diren ekintzak mantentzea beharrezkoa ikusten da, eta erakundeekin egun horiek ongi antolatzearen beharra ikusten da. Martxo osoan mantendu genuen erakusketak horren inguruan.
- Beldur Barik programarako antolatutako 7 laburmetrai; lau sari lortu genuen.
- Egindako ekintzen difusioa garrantzitsutzat hartzen da (WEB orrialdea, kartelak, etab.) egin baino lehenago eta egin eta gero.

Elkarbizitza:

HAUSPOA proiektuan integratzeak ez dio balio gehiagorik eman Elkarbizitza Proiektuari; datorren ikasturteari begira erabaki hura birplanteatu behar dugu.

Laguntzaileen inplikazioa egun berezietako jardueretan nabarmentzen dugu. Egindako formazioa positiboki baloratua izan da. Denborarik eza nabarmentzen da bitartekaritza lanak aurrera eramateko. Bakeola erakundearekiko egiten dugun formazioa ere aztertu behar dugu.

Formazio aproposa lortzea zailtasun bezala ikusten dute arduradunek.

Bitartekaritza taldea aurrera eramateko denbora gehiago sartzeko beharra ere azpimarratu behar da. Ikasleen arteko gatazken aurreko tresna indartsua dela barneratu behar dugu guztiok.

Osasuna:

Planifikaturik zegoena aurrera eraman da. jarduerak oso zehaztuta daude, ondo baloratzen dira eta jarraitu behar dute. Agenda21-proiektuarekiko koordinazioa indartu behar delakoan daude.

Biko Arloak emandako formazioa mantendu behar da eta tabakoaren kontsumoaren inguruko jarduera DBH 1. mailan soilik lan egitea proposatzen da.

Patioak animatzeko ekintzetaz mintzatzeko heziketa Zikloetako irakasleria zein ikasleriarekin koordinazio uneak zehaztea komenigarria da.

Arduradunen ustez, Hauspoa ez da testu-ingururik egokiena Osasun Proiektua garatzeko. Ikasleen jarrera eta arreta maila zailtasun bezala ulertzen dute.

Agenda 21:

Aurten ere, proiektuaren eraginkortasun maila erdikoak izan da; izan ere Hauspoa proiektuan integratua izateak ikasleen partaidetza maila baldintzatu du, beste jarduera askorekin "norgehiagokan" izan delako.

Era positiboan baloratzen da Udaletxearekiko harremana eta hurrengo ikasturteei begira koordinazio eta komunikazio maila sustatzea eskatzen du arduradunak.

Zuzendaritza taldeak proiektuari egonkortasuna eta jarraitasuna eman behar zaiola deritzo eta horretarako ezinbestekoa dela ikastetxean bere behin-betiko lanpostua duen irakasle baten inplikazioa. Honela adierazi da klaustroan eta proiektuaren jarraipena eskatuko da baldintza hori betetzen bada.

2.3.3.- Beste batzuk

Liburutegia

Arduradunaren balorazioa positiboa izan da. Kudeaketa egokiaren ondorioz liburu mailegua igo egin da: aurten 230 mailegu egin dira.

Kurtsoan zehar tailer eta lehiaketak egin dira (mikro-ipu in lehiaketa). Bide honetatik jarraitu behar dugu.

Maileguen kudeaketa prozesuarekin mantentzea proposatzen da. Alderdi negatiboa bezala ikasle batzuei liburuak itzultzea kostatzen zaiela eta haien atzetik ibili behar dela.

AMPAkide eta Udaleko liburutegiko arduradunarekiko harremana mantentzea komenigarria da.

Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak (LAPZ) esleitutako lanak egin ditu, hauexek nabarmenduz:

Larrialdietako simulazioa era egokian egin zen eta bere garrantziaz gero eta kontzientzia handiagoa daukagu. Hala ere, zailtasun batzuk izan genituen hurrengo simulazioan kontutan hartzeko.

Jantokia

Zerbitzuak era egokian funtzionatu egin du, guztion arteko koordinazio onez. Gurasoekiko komunikazioa ere egokia izan da. Hutsegiteen kontrola egiteko sistema berria erabiltzea eskatzen da baita euskararen erabilera bultzatzea ere.

IKT

Alor honetan igartzen da etorritako irakasle berriak adituak direla IKT munduan. Irakasleok gaitasun digitalaz formazioa jaso dugun arren alor honetan asko hobetu beharra dugu: Moodle ez da erakargarria izan irakasleontzako.

Datorren ikasturtean Heldutasun teknologikoan erdi-maila lortzeko urratsak emango ditugu eta G-Suite plataformaren erabilgarritasun aukerak arakatu ere.

ESKOLA 2.0.

Aurten ordenagailu hauek ikasle zein irakasleek gehiago erabili dira, arazo gutxiagorekin. Ordenagailuak armairutik ateratzeko eta sartzeko denbora galtzen da.

Hurrengo ikasturterako gehiago erabiliko direlako erabilera horren erregistro orri bat sortuko dugu.

3.- BIZIKIDETZA URTEKO PLANAREN EBALUAZIOA

Planaren garapena oso positiboki balioesten da eta honako hau nabarmentzen da bereziki:

- Ikasle berriekiko harrera eta irakasleen inplikazioa.
- Ikasle Laguntzaileen Proiektuarekin Udalak duen inplikazio maila handia.
- Ikasle Laguntzaileek egiten duten lan erdi-ezkutua eta erlazionatutako ekintzekin erabiltzen duten denbora librea.
- Irakasleen arteko gatazken ebazpenetarako Ikasle laguntzaileek izan duten hartu-eman positiboa.
- Bizikidetza Behatokiak bere lana ondo egin du. Pertsona gehiagok ideiak ematea positiboa litzateke: bereziki ikasleena. Bilerak baino lehenago dokumentazioa eskuratzeak laguntza handia ematen du.
- Eskola Bitartekaritza proiektuak ikasle berrien parte hartzea eta irakasle guztien sostengua behar du

4.- OSAGARRIKO ETA ESKOLAZ KANPOKO EKINTZETARAKO PROGRAMAREN EBALUAZIOA

Ikastetxeko Urteko Planaren (IUP) barruan programatuta dauden ekintza gehienak burutu dira. Ez ohiko prozeduraren bitartez onartutako ekintza oso gutxi eraman dira aurrera.

Orokorki ebaluazioa ona izan da: Gure araudiak zehaztutako bi urratsak errespetatu dira oraingoa, salbuespen batzuk izan ezik

Ezberdinak eta interesgarriak ematen dituzte baita proposatutako helburuak betetzen dituztela ere.

Elkarbizitza eta ikasketa bidaiak arrakastatsuak izan dira, aurrera eraman ditugu Bizikidetza Arauei jarraituz. Ekintzei jarraipena egiteko prozedura aurten orokorrean bete dela azpimarratu behar da, ekintzak ebaluatzeko orria antolatzaile gehienek bete dute. Hori bai, jardueraren balorazioa egin behar dela beti gogoratu behar zaie arduradunei.

Eskolaz kanpoko jarduerari eta eskola-kirolari buruz, ikasleentzako asetzeko gradua altua da eta aurreikusitako helburuak bete egin direla nabarmentzen da, jarduera guztiak euskaraz izatearena barne. IGE-koen arduradunen lan handia egin dute eta eskaintza eta partaidetza altuagoa lortzen ari da.

5.- IRAKASLEENTZAKO FORMAZIO PLANAREN EBALUAZIOA

Aurreikusitako ekintzak burutu egin ditugu. Zuzendaritzak irakasleek ea formazio orduak behar bezala bete duten kontrolatu egin du eta lan obligazioen barruan egon direla egiaztatu egin du.

Era positibo batez baloratu dira programazio didaktikoak eguneratzeko formazio saioak. Alfresco plataformaren erabilpena bultzatzeko, eta ikastetxeko posta korporatiboaren berri emateko saioa baliagarria izan da.

“Prestakuntza Ekimen Globala” barruan, aurreikusita genuen bi moduluak burutu ditugu, gure Berritzeguneko teknikariek gidatuta: “Hizkuntzen trataera bateratua” eta “Gaitasun digitala”. Bi moduluek ezarpen praktikoa: Departamendu linguistikoek adostutako idazmena ebaluatzeko errubrika bat eta teknologia saio batean teknikariak egindako behaketa.

Bizikasi ekimenaren testu- inguruan ere Berdinen arteko tratu txarrak eta bullying bezalako jokabideen aurreko trataerarako formazio saioaren balorazioa ez da positiboa: aurreko ikasturteko Bakeolako hezitzaile aldaketak formazioaren kalitateari nabarmen kaltetu dio. Saioa prestatzeko burututako lan-bilerak ez dira eraginkorrak izan eta gure formazio beharrak ez dira ulertuak izan. Ondorioz, onartu behar da formazio saioetako helburuak ez direla bete.

Iritzi batzuen arabera, formazio saioak zehatzagoak eta eraginkorragoak izan behar dira ahalik eta atarramendu handiena ateratzeko.

6.- URTEKO KUDEAKETA EGITAMUAREN EBALUAZIOA

Institutuaren kudeaketa oso positiboki balioesten da. Hori bai, beharrezkoa ikusten dugu Ikastetxeko kudeaketa Plana egitea.

7.- ONDORIOAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Hauexek dira aipatzen diren proposamenak:

- Irakaskuntza-ikaskuntza metodologiaren hobekuntzan eta Praktika onak gure ikastetxean ezartzen jarraitu behar dugu, gaur egungo eskakizunei doitzeko: HAUSPOA Proiektua horretarako “giltza” izan behar da.
- Emaidza akademikoen eta gure irakaslanaren inguruko hausnarketa bultzatzen jarraitzea, ikasleen errendimendu akademikoa hobetearren.
- Ikastetxeko Irakurketa Plana burutzea; Ikasleen euskarazko komunikatzeko gaitasuna hobetzeko lanekin jarraitzea arlo guztietan, batez ere ahozko eta idatzizko adierazpena.
- IKTek ikasgelan duten inplantazioa erraztu eta bultzatzea; heldutasun teknologiko erdiko ziurtagiria lortzeko erabakiak hartzea.
- Proiektuen arteko koordinazioa hobetzea, geletan duten eraginkortasuna handiagoa lortzeko.
- Tutoreek garatzen duten lana indartzen jarraitzea.
- Ikasleen parte hartzea zentroaren bizitzaren arlo guztietan.
- Irakasleentzako formazio saioen eraginkortasuna hobetzea.
- Errefortzu ordu gehiago eskatzea, baita Curriculum Aniztasuna (CA) egotea ere.
- Administrazio eta zerbitzu langileen euskararen erabilera indartzea.